

# ALFREDO ETXABE:

## "MENDIAK ASKATASUN-IKUSPEGI ETA EGARRIA EMATEN DIO GIZONARI"

Eusko Jaurlaritzako Kiroletarako Zuzendaritzak bi miloi pezeta-ko diru-laguntza eman dio Maiatzean goia hartu ezinik geratu zen Lhotserako Euskal ekspedizioari. Euskadiko Gobernuak lehendanik ere erakutsi izan du mendizaletasunarekiko grina eta atxikimendua baina hau izan da, euskal administrazio berriak kirol-arlo honetan eskaini duen lehen subentzinoa. Guzti honetaz eta Jaurlaritzaren aldetik mendizaletasunari buruzko asko eta plangintzez hitzegin dugu Kiroletako Zuzendari den Alfredo Etxabe Jaunarekin.



Alfredo Etxabe, Director de Deportes del Gobierno Vasco.

- \* *Tan importante como ayudar a las figuras famosas es ayudar a la juventud.*
- \* *En la Federación Vasca tenemos gente muy bien preparada.*
- \* *Tenemos que crear una infraestructura del deporte.*

*Alfredo Etxabe:* —Euskal Herrian mendigoizaletasunak aspaldidanik izan du erakarmen handia. Herri menditsua izateak, batetik, eta bertako biztanleak menditik hain urre bizi izateak bestetik, mendizale-tasun handia eragin izan du gure artean. Ondorioz, eta ezin bestean, zaletasun honek maila eta ospe handiko kirolariak sortu eta eragin ditu. Horra hor sasoi batetako Andesetarako igoaldia, gero Everesteko arrakasta handia eta azkenik oraintsuko Lhot erako ekspedizioa, erabat gairiditxerik kortu ez bada ere, eta nafarren «zazpimilakoa».

Guzti hau, bat-batean sortu izan da Euskal Herrian, herri mailako zaletasun hutsez, eta eragintza publikoaren bultzadarik gabe, beste zenbait kirol-mota ez bezala. Esate baterako, voleibola, saskibaloia zein eskubaloia sortu berriak dira Euskal Herrian, eta sortu baziren Estatu mailako plangintza baten araberan sartu ziren. Eta ordu onean sartu zirela esan nahi nuke, jakina, gaur egun Gipuzkoan eskubaloiak duen arrakasta onerako baino ezin daiteke izan eta.

*Pyrenaica:* —Zein neurritan da mendigoizaletasuna bultzagarri eta sustagarri?

*A. E.:* —Mendia gairiditu ahal izana guztiz kirol-ekintza liluragarri bat da, bakarka nahiz taldeka gizonaren ahalegin eta ahalmenen probaleku baita. Oinarrizko legekirolak inon betetzen baldin badira mendiaren bakardadean betetzen dira. Egia da bai arlo honetan ere, teknikak gero eta landuagoak direla, gero eta material onago eta jantziagoa erabiltzen dela, baina, azke-

nean, egiazko orduan, gizona baizik ez da geratzen bere trebetasun eta prestaketaren neurrian. Horra zergatik, besteak beste, Everestearaino iritsitako gizonak ez dute Lhotse-gaina hartzerik izan.

### GAZTERIARI ERANTZUN BAT ZOR ZAIO

*P.:* —Lhotse aipatu duzu eta Eusko Jaurlaritzak bi miloi pezeta-ko laguntza eskaini dionez gero ekspedizio honi, gero ere honelako ekintza handiak subentzionatzeko asmoa al du Kiroletarako Zuzendaritzak?

*A. E.:* —Eusko Jaurlaritzak gogotan ditu horrelako goimailako ekintzak eta, zalan-tzarik ez, ospe eta entzute handiko ekspedizio hoiak guztiz garrantzitsuak direla bai Euskadi izena mundu guztian zehar zabal-tzeko eta ezagutarazteko eta, baita euskal mendigoizaletasunaren goi-mailaren frogagarri ere. Alde honetatik, ahalegin hoiak erabat lagungarri dira.

Hala ere gutxi batzuen ekspedizio hoiak ez digute ahaztu-arazi behar guk gazteriarrekiko dugun erantzukizun soziala, eta zein garrantzi handia duen oinarriko kirol-azpiegitura bat eratzea, moldatzea eta martxan jartzea, gazterien artean mendizale-tasuna eragiteko eta suspertzeko, herri batentzat lehen mailako figura ospetsu batzuk izatea interesgarri bezain pozgarri baldin bada, haren interesgarriago eta pozgarriago baita gazteria kirol-alorretan erruz murgilaraztea.

Gure diru-laguntzek beren mugak dituzte eta, ondo neurtu beharra dago, kasuan

kasu, zenbateraino den komenigarri epopeia handiak diruz laguntzea eta zein neurritan ahalegin behar dugun mendigoizaletasun hori egiazki hedatzen, barraiatzen eta masifikatzen jendartean.

*P.:* —Galdera bikoitz horri erantzuteko behar den ausardiarekin sentitzen al duzu zeure burua?

*A. E.:* —Ez gaude, gero, gu bakarrik. Batetik, kirol-lege bat burutu beharko da kirol-dema kolektiboak bideratzeko eta Status batez ofizialki egokitzeko. Bestetik Euskal Herriko Mendi Federazio barruan jende guztiz trebea dugu, lan biderkatzaile bat lortu ahal izateko zer nolako plangintza bat burutu beharko litzatekeen ondotox dakiena, ikuspegi orokor eta zabal batez. Zentzu honetan eratzeko dira eskaladatikastaroak, osasun-orientabideak, kirol-par-taidetzatarako abiapuntuak eta abar. Plan-keta hau, lehentxoago aipatu dugun kirol-azpiegitura horretan oinarritu beharko dugu.

*P.:* —Euskal Federazioa aipatu duzu. Zertan da Nafarroaren auzia guzti honetaz.

*A. E.:* —Begira, mendiak, lehen eta behingoz askatasun ikuspegi eta egarri bat ematen dio gizonari eta bere baitan bere burua ezagutzeko aukera aparta. Inor bere herriaren nortasunez jabetzeko aukera onik baldin badu, hori mendigoizalea da. Mendigoizaletasunak zentzu nazional sakon bat ezartzen dio mendizaleari. Eta horregatik hain zuzen, mendigoizale nafarrik gehienak abertzaleak dira. Beraz, ondorioak, begi bistakoak dira ezin bestean.